

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

KONTROL MOZIOA

Barrutiko Udal Batzarraren egitekoa aintzat hartzeari eta galdutako diru sailak berreskuratzeari buruzkoa

Zigor Etxeburua Urbizuk, EH Bildu udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkeztu du, Udalbatzan azter dadin. Mozioaren oinarria 2020ko abenduaren 9an Zerbitzu Orokorren batzordean aztertutako interpelazioan dago.

JUSTIFIKAZIOA

Azaroaren 11n, Barrutiko Udal batzarraren bilera telematikoan, gai ordenatik kanpo, eta bileraren aurretik dokumentaziorik bidali gabe, Udaleko Parte Hartzeko zuzendariak azaldu zuen Udal Gobernuak erabaki zuela inbertsioetara berraktibatutako 13 milioi euroetatik 325.000 € bideratzea Barrutiaren 2020ko aurrekonturako.

Jakinik Udal batzarrak uztailean erabaki zuela 2020ko aurrekontuaren exekuzioaren hurrenkera izatea lehenik 2019tik egiteke zeuden jarduerekin hastea -eta horien aurreikuspen ekonomikoa 406.257,7 eurokoa zenez, hau da, jarduera horiek guztiak egiteko adina ez-, zuzendariak eskatu zion Udal batzarrari erabakitzeke zeintzuk ekintzak eta jarduerak egin diru sail murriztago horrekin, eta, jakina, zeintzuk ez egin.

EH Bilduko ordezkariok gogorarazi genuen Toki Araubidearen Oinarriari buruzko Legearen 46.3 artikulua aldatu dela, eta Udaleko idazkariak horrela adierazita, ezin zela bilera telematiko horretan erabakirik hartu. Zuzendariak ohartarazi zuen erabakia azkar batean hartu behar zela, diru sail hori aurten erabiltzekoa zelako, luzapenik egiteko aukerarik gabe.

Abenduaren 9an, alkatea interpelatu genuen gure taldearen kezka adierazteko, Udal Gobernuak erabaki duela Barrutiaren aurrekontua % 75 murriztea, Udal Gobernuak murrizketa handi hori egin duela Barrutiko Udal Batzarrari irizpideak azaldu gabe eta iritzia eskatu gabe, eta prozedurak ez zaintzeagatik. Alkateak erantzun zuen berdina jokatu duela Zubietako herri kontseiluarekin edo Txomin Eneko Arteleku plazarekin, murrizketei dagokienez. Era berean, onartu zuen ez zirela garaiz ibili, baina adierazi zuen ez zuela ezertarako balio Barrutiko Batzarrari kontsultatzea, bazekielako zer erantzungo zioten.

Ez gatoz bat, inola ere, ikuspegi horiekin, batetik, Barrutiaren aurrekontuko diru sailak nagusiki inbertsioetakoak izanik, praktikan, mozketak aurrekontua ia osorik kateatu diolako, eta ondorioz, ezarritako murrizketa beste ezin udal saili egindakoa baino askoz handiagoa izan da, bai kuantitatiboki bai kualitatiboki; bestetik, prozedurak ez zaintzeko zurrubidea ezin delako izan presa izatea, erabaki hori hartu zenean urtea amaitzeko bi hilabete baino gehiago geratzen zirelarik; eta azkenik, larria eta salagarria iruditzen zaigulako alkateak alferrikakoa iriztea Batzarrari kontsultatzea aurrekontuari hain murrizketa handia egiteko erabakia. Horrek erakusten du ez duela aintzat hartzen Barrutiko Batzarraren egitekoa.

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

KONTROL MOZIOA:

- 1.- Udaltzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari aintzat har dezala Barrutiko Batzarraren egitekoa, Barrutiaren eta Udaleko organo zentralen arteko lankidetzeta eta koordinazioa bermatuta, eta herritarren partaidetza indartzeko, udal kudeaketa herritarrei gerturatzeko, gardentasunez jarduteko eta eraginkortasuna hobetzeko helburuak beteta, Barrutien Organo Araudiaren 2.a, 2.b eta 17.10 artikuluek ezarri bezala.
- 2.- Udaltzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari gehitu diezaiola diru sail berezi bat Barrutiaren ohiko aurrekontuari, datozen bi urteetan, Barrutiak berreskuratu dezan 2020ko aurrekontuari murriztutako diru kopurua.

Donostia, 2020ko abenduaren 11n.

Zigor Etxeburua Urbizu
EH Bildu udal taldeko zinegotzia